

# noaua

**Orbeldi Dantza Taldean matrikulatzeko garaia da**

**OinHerri taldea: "Herria bera da eremu hezitzaile bat"**

**Amaia Zubiria kantaria: "Beti esaten dut Zubietakoa naizela"**



**Udalak milioi bat euro inbertituko du merkataritza eta ostalaritza sektorea biziberritzeko**



# KANPALDIAK LAR ZALDIAK-EN

**Ekaina, uztaila  
eta abuztua**

**telf: 666607447  
637932058**

**Ekitazioa  
Kirol jokoak  
Lehenago pausoak zaldiarekin  
Teoria  
Euskara  
Baserriko jarduerak  
Mendiko ibilbideak**



ion market  
ARGAZTEA

**goizez  
09:00-14:00**

# HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

## Matrikula epea

ekainaren 22tik 30 arte

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08 )

### •HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturtako mugimendu artistikoak...)

### • DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

### • GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

### • IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAZ



**ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus**

# noaua.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak,  
agenda, zorion-agurrak,  
eguraldia, aldizkaria online...  
Klik batean den-dena ikusgai zure  
eskuko telefonoan, tablet-ean  
edo ordenagailuan.



[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

## Albisteak iruditan

# Ernai, 'Hamaika gara' ekimenarekin bat

**H**amaika gara ekimenak atxiki-menduak batzen jarraitzen du. Oraingoan, Usurbilgo Ernai izan da sinadura kanpainari bere babesa adierazi dion bilgunea. "Gure bizitzetan eta komunitatean eragiten duten auzi guztiei buruz erabakitzeko eskubidea dugulako eta argi dugulako herri bezala aurrerapauso eraginkorrak egin nahi baditugu, ezinbestekoa dugula elkarrekin, herri bezala ekitea: herritarrak, eragileak eta erakundeak eskutik helduta".

Erabakiak geroz eta gutxiagoren artean hartzeko joera gailentzen den garai hauetan, "guk herritarren indarra jarri behar dugu mahai gainean", dio Usurbilgo Gure Eskuk. "Atzerakada demokratikoei herritarrok ahaldunduta, bat eginda eta demokrazian sakonduz erantzun behar diegu". Hori aldarrikatzeko asmoz, *Hamaika gara* sinadura kanpaina abiarazi dute. "Guztion ardura



Irudian Usurbilgo Ernai, 'Hamaika Gara' ekimenari atxikimendua ematen. Argazkia: Gure Esku.

da eta zure babesa ere ezinbestekoa da; sartu <https://hamaikagara.eus/sinatu>

atarian eta sinatu Hamaika Gara ekimenaren alde".

## Laburrean

### Sei egunez ez zen kasurik atzeman

Ekainaren 8tik 13ra ez dute Covid-19 kasu berririk atzeman udalerritan. Ekainaren 15ean bi kasu berri eta 142,68ko intzidentzia zuen koronabirusak egun horretan Usurbilen. Eredu horian egoten jarraitzen dugu.

### Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

### Apirileko langabetu kopuru bera maitzean

Maitzean ere 238 langabetu zenbaitu ditu Estatu Enplegu Zerbitzuak Usurbilen. Emakumezkoen langabetu kopuruak gora egin du (127tik 133ra), eta gizonezkoenak behera (111tik 105era).

# noa.ua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| [elkartea@noa.ua](mailto:elkartea@noa.ua) ||| [www.noa.ua](http://www.noa.ua)  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Disenua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
[publizitatea@noa.ua](mailto:publizitatea@noa.ua)

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza, Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noa.ua](mailto:erredakzioa@noa.ua)



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre Zapirain

**N**on dago Amaia? Axola al du horrek? Axola behar luke. Nori? Niri ez. Zergatik ez? Zu hasi zinen bere atzetik bila eta bila. Bai, eta alferrrikako denbora galtzea izan zen. Hain erraz eman behar duzu amore? Ez da amore ematea edo ez ematea. Errealitatea den bezala onartu behar da.

Harritzen nau halako hitzak zure ahotik entzuteak. Zergatik diozu hori? Bizitza osoa amets sortzen ibili den baten partetik patetikoa iruditzen zaidalako. Dena haur ipuin bat zelakoan jardun ohi genuen orduko garaietan, baina begiak argitzeko gai izan gara denborarekin. Kar-Kar-Kar. Bizitzaren esperimentiarekin ikasi duen bat dirudizu. Akaso zuk ez duzu horrelakorik egin? Kolpeak berdin-berdin jasotzen dira eta ozeanoak batera edo bestera irentsiko gaitu. Bizi-ikuspegi horrekin uste baino lehenago irristatuko zara zoru labainkorretan eta amildegian behera eroriko. Erorketa infinitua izango da, ordea. Eta horrekin zer esan nahi duzu? Kezkatu behar gaituen bakarra gure hauskortasun gaitasuna dela. Grabitatearen inperioan axola duen ahulezia bakarra. Horregatik sortu genituen pantailak. Beraiek apur zitezten gu baino lehen? Bai zera! Gure harresi,

## Ez da bakarrizketa (edo bai?)



Uztailaren 9an ostirala, Ugaitz Agirrek "Non dago Amaia?" ikuskizuna eskainiko du Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean.

### UGAITZ AGIRRE

**"Ez al zara konturatzen alferrrik zabiltzala? Zergatik? Jolasa amaitu delako. Ze momentutan amaitu da? Hastea erabaki zenuen momentuan bertan. Kar-kar-kar"**

babesleku eta paradisu bihur zedin gure bandoa. Eta zein bando da hori? Ez jainko itxurako salbatzaileena. Ezta zaldi zoro nomadana ere. Norenean aurkitzen gara bada? Zirkuarenean. Zirkuarenean? Ze bando klase da hori? Espektakularena, show-must-go-onarena, fokuena, garrasiena, intziriena, maskarena, magiarena, zoramenarena, eskizofreniarena, irudiarena. Ez al da hori bizi gaituen errealitatea? Halaxe da. Orduan gu zer gara, bando errealistaren militanteak?

Beste manieraren batek egon behar du hain deprimentea ez izateko tokatu zaigun denbora. Atzera kontu etengabeen bizi gara. Geratzen zaiguna erritmoa jarraitzea besterik ez da. Eta nork jartzen du erritmoa? Ordulariak. Ez. Hori gehiegi da. Ez dut bizi izandakoaz jabetu nahi behin argazkitan ikusten dudanean. Nostalgiaaren sintomak izan ohi dira horiek. Jendea intoxikatzeraino ailegatu da turbo garai hauetan, autobideak nahiago baititu gurdi-bideen aldean. Nork tiratuko duenik ere ez da egun. Aski da zilborra bistan joatea konturatzeko norberak zer nahi duen konprenitzeko. Eta bitartean ordularia tik-tak-tik-tak-tik-tak-tik-tak. Atsedean hartu nahi dut. Ezin da. Zergatik? Ezin delako. Baina zergatik? Zergatik ez duzu pixka bat pentsatzen? Beti dena mastekatuta irentsi nahi. Beste mo-

durik ba ote da kontsumitzeko? Latetako maitasunak naturalaren zapore bera omen du. Eta hori ona da? Iragarkien arabera bai. Heriotzak bera izaten jarraitzen du halere. Latetakoa zein naturala, biak ala biak dira heriotza. Zergatik diozu hori? Nekatuergi nago. Geratu nahi dut. Ez dago geldialdirik. Non dago Amaia? Ez dakit. Lurrean etzan nahi dut. Hoztuko zara etzaten bazara. Zergatik? Elurra mara-mara ari du. Udaberrian esna nazazu. Udaberriak iazkoaren iazkoak dira, geroz eta zaharragoak. Utzidazu zure silueta irudikatzen. Desagertu dira zidorrak eta tren-bideak. Nora joan nahi duzu? Horrek gutxi asko inporta du nora joaterik ez dugunean. Amaiarengana? Guk ohar-terako aurkituko gaitu berak. Neskato bat da eta. Nola dakizu neskato bat dela? Noizbait ikusi duzu? Bai, edo hori uste dut behintzat. Zenbatzen hasterako joana zen ezkutatzera. Non dago Amaia? Inork ez daki, ez al zara oraindik ohartu? Nonbait egongo da pistaren bat. Ez al zara konturatzen alferrrik zabiltzala? Zergatik? Jolasa amaitu delako. Ze momentutan amaitu da? Hastea erabaki zenuen momentuan bertan. Kar-kar-kar. Nitaz trufatzen ari zara? Pitzatuergi gaude trufatzen ez ibiltzeko.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

**GAR**  
GRUPO MONROY  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
**628 45 78 39**  
reformasmonroy@hotmail.es  
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
**943 37 10 42**  
Zubiaurrenea 5

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzekoaldea  
**943 372 795**

Josue  
Igeltseritza  
**606 37 21 05**  
Atallu pol.28 USURBIL



# Matrikulazio garaia Orbeldi Dantza Taldean

**D**agoeneko udazkenean abiatuko duen denboraldi berrirako izen emate kanpaina abiarazi du Orbeldi Dantza Taldeak. Astebetez izango dute irekita, ekainaren 18ra arte. Formulazio bidez osatu beharko da izen ematea.

## “Taldeak gutxienez 8 pertsonakoak izango dira”

Aurrez aurreko hitzordua ere finkatu dute Orbeldiko kideek; ostiralean, ekainaren 18an, Usurbilgo Kultur Biraren baitan Artzabalgo frontoian eskainiko duten emanaldian.

Kontuan hartzeko zenbait ohar plazaratu ditu Orbeldik. Batetik, “behin ordua aukeratu ezin izango da taldez aldatu”. Bigarrenik, “taldeak gutxienez 8 pertsonakoak izango dira eta gehienez 15 pertsonakoak. Muga gaindituz gero bi talde jarriko lirake ordu berean”.



Ekainaren 18ra arte egongo da matrikulazio epea zabalik.

### KUOTA

**“70 euro ikasturtea. Senide bat baino gehiago badaude, bakoitzak 60 euro”**

#### Haurrei zuzenduriko eskaintza

- Astelehena: 16:45-17:45 LH 1-2.
- 17:45-18:45 LH 3-4.
- Asteartea: 18:30-20:00 DBH.
- Asteazkena: 16:45-17:45 LH 5-6.

17:45-18:45 LH 5-6.

- Ostirala: 16:45-17:45 LH 1-2.
- 17:45-18:45 LH 3-4.

#### Oharrak:

- Taldea osatzeko gutxienez 8 kidekoa izan behar du. 15 dantzari baino gehiago izanez gero, zozketa bidez bi taldeetan banatuko dute.
- Kuota: ikasturtea 70 euro (senide bat baino gehiago badaude bakoitzak 60 euro).

Azaroan kobratuko da.

#### Helduentzako eskaintza

- Astelehena: 19:00-21:00 Euskal dantzen taldea.
- Asteartea: 19:00-20:30 Oinarrizko dantzak.
- Asteazkena: 18:30-20:00 Dantza hastapenak.
- 19:00-20:30 Plaza dantzak.

#### Oharrak:

- Taldea osatzeko gutxienez 8 kidekoa izan behar du.
- Kuota: ikasturtea 90 euro (senide bat baino gehiago badaude bakoitzak 80 euro). Azaroan kobratuko da.

#### Informazio gehiagorako:

E-posta: orbeldi.udt@gmail.com  
Facebook: OrbeldiDT  
Instagram: @orbeldi\_UDT

## 2021/2022 ikasturterako liburu salerosketak Oriarten

**B**igarren eskuko liburuaren salerosketa azoka antolatu du Oriartekide Guraso Elkarteak. DBH3tik Batxillerreko 2. urtera arteko bigarren eskuko liburuak erosteko aukera eskainiko dute ekainaren 28an, 16:00etatik 18:00etara. Saldu nahi dituztenek, berriz, ekainaren 25ean entregatu beharko dituzte liburuak ordu berean.

Liburuak saltzea interesatzen zaienentzat, egoera onean

utzi beharko dute materiala, puskatu gabe eta erabilgarri. Liburuak saltzeko moduan dauden edo ez Guraso Elkarteak baloratuko du. Horrez gain, depositoa utzi beharko dituzte liburuak frogagiriarekin batera, horretarako jarritako eguna behar bezala errespetatuz: ekainaren 25ean, 16:00etatik 18:00etara.

Erosteko asmotan dabilentzat, berriz, gaur egun liburu bakoitzak duen prezioaren erdian balora-

tuko dira, gutxi gorabehera, prezioak borobilduta. Dirua emateko egunean jasotzen ez diren liburuak edota dirua, Guraso Elkarteak jasoko ditu, eta aurrez kontrakoa esaten ez bada, Guraso elkartearen ondare bihurtuko dira.

#### Liburu berriak, soilik dendetan salgai

Kontuan izan Oriartekide Guraso Elkarteak aurrez ez duela liburu berririk salduko, eta beraz, Lasarte-Oriako eta



Bigarren eskuko liburuak erosteko aukera egongo da ekainaren 28an.

Usurbilgo liburu-dendetan edo edozein liburu-dendatan erosi beharko dira.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Amaia Zubiria: “Harreman zuzenik ez dut, baina beti esaten dut Zubietakoa naizela”

**A**darra Saria jasoko du Amaia Zubiria zubietarrak datorren astelehenean, hilak 21. 2014an hasi zen Donostiako Udala Donostia Kulturarekin batera eskal musikari eskainitako saria banatzen. Orain arteko irabazleak, sona handiko musikariak dira: Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Fermin Muguruza, Anari, Berri Txarrak eta Kepa Junkera. Aurtengoan beste musikari handi bat gehituko zaio zerrenda horri: Amaia Zubiria.

**NOAUA! Aurtengo Adarra saria jasoko duzu. Zure urteetako lana saritua izango da. Zer suposatzen du zuretzat horrelako sari bat jasotzeak?**

**Amaia Zubiria:** Orain arte saritu dituztenak bat hilda dago (Mikel Laboa), baina gainontzeak gazteak dira. Nik bizitzaren ziklo gisa irudikatzen dut guztia, gazteek oraindik asko dute ikasteko, baina baita esateko ere. Nire abeslari ibilbidearen zati handi bat joan da jada, eta eginiko lanaren islada da sari hau.

**Sari banaketa egin ostean, kontzertua eskainiko duzu Victoria Eugenia. Musikari eta artista askorentzat leku pribilegiatua da.**

Leku ederra da Victoria Eugenia, baina baita beste leku



“Nire ibilbidearen zati handi bat joan da jada. Eginiko lanaren isla da sari hau”. Argazkia: Conny Beyreuther.

## AMAIA ZUBIRIA

**“Taldeak eskaintzen duena da garrantzitsuena, eta jendearen bihotzera iristen bada, edozein leku da ezinhobea”**

ugari ere. Giro polita sor daitekeen edozein leku, dela plaza, dela sala bat, leku ona izan daiteke kontzertu bat emateko. Taldeak eskaintzen duena da garrantzitsuena, eta jendearen bihotzera iristen bada

lana edozein leku izanda ere ezinhobea izango da. Victoria Eugenia donostiarrentzat eta orokorrean gipuzkoarrentzat leku ederra da eta gustora arituko naiz taula gainean.

**Artista asko izango dituzu taulagainean zurekin, tartean zure semea bera. Horrek bereziago egiten du kontzertua?**

Kontzertua berezi egingo duena denok elkartuta egotea da. Kontzertuan parte hartuko duten guztiak nirekin aritu diren

musikariak dira, eta batzuekin urte asko eman ditut mikrofono atzean. Beste batzuekin bolada bateko kontua baino ez da izan. Nire semearekin ere urteak daramatzat bikote lanetan, eta beraz, kontzertu horretan ere parte hartuko du, jakina. Askotan deitzen digute kontzertuak emateko herri txikietan, edo sala txikietan, eta orokorrean intimoak diren leku berezietan. Gisa horretako kontzertuak semearekin ematen ditut beti, urteak direla horrela funtzionatzen dugula.

## “Erdi ezkutuan joaten nintzen kantu lehiaketetara”

**NOAUA! Zubietan bizi zinen garaian ekin zenion abesteari?**

**Amaia Zubiria:** 16 urterekin Donostian egin nituen lehen urratsak. Abesteko txapelketa bat antolatu zuten Donostiako Arte Ederren antzokian,

jada ez da existitzen, oso leku polita zen. Bertan, urtero kantu lehiaketa antolatzen zuten, eta han elkartzen ginen hainbat pertsona. Erdi ezkutuan joaten nintzen, nire etxean ez baitzuten entzun ere egin nahi izaten abeslari izan nahi nuen kopl

hura. Hara joaten nintzen, ordea, eta irabazi ere egin izan nuen behin baino gehiagotan. Hor hasi zen nire ibilbidea.

Gero, 19 urterekin, oso gazte ezkondu egin nintzen. Behin ezkondu abestearekiko joerarik ez genuen posible ikus-

ten, ez zen oso ohikoa egoera hori.

Handik hamar urtera, banandu egin nintzen, 29 urterekin, eta nire lehen diskoan lanean hasi nintzen. Ordunik gaurdaino ez naiz gelditu.

# “Urte hauetan musikari askorekin egin dut lan, izan musikari, izan instrumentujole”

**NOAUA!** Zubietan jaio zinen, nahiz eta urte asko diren bertan bizi ez zarela. Oraindik ere baduzu lotura Zubietarekin?

**Amaia Zubiria:** Zubieta asko dauzkagu Euskal Herrian, Gipuzkoako nire Zubietaz gain. Zaila da herri batekiko lotura mantentzea, herria jendeak egiten baitu. Ni bertan jaio nintzen, Txakurtxulon, hain zuzen ere, ez Donostiako ospitalean edo beste inon. Gaur egun, nire familiaren gehien-goia ez da Zubietan bizi, eta beraz, herrira ez nau ia ezerk lotzen, iraganeko oroitzapenek eta familiako batzuk. Lagun batzuk ere banituen bertan, baina denborarekin banandu egin ginen. Zubietatik kanpo etorkizuna sortzea erabaki zuten gehienek, nik neuk bezala, eta horrek eragin zuzena du harremanak hoztean. Ni ere, hara eta hona ibili naiz bizitza gutzian, eta hori da ondorio nagusia. Beraz, harreman zuzenik ez dut, baina sentimendua



“Hasieran abesti tradizionalak abesten hasi nintzen, eta geroago heldu nion abestiak sortzeari”.

## AMAIA ZUBIRIA

**“Gipuzkoako Zubieta herrikoa. Inoiz ez naiz usurbildar sentitu, ez donostiar, ni beti zubietarra izan naiz eta hala izango naiz”**

bai, beti esaten dut Zubietakoa naizela, Gipuzkoako Zubieta herrikoa. Inoiz ez naiz usurbildar sentitu, ez donostiar, ni

beti zubietarra izan naiz eta hala izango naiz.

**Zer-nolako abestiak prestatzen ari zara ordurako, zure ibilbidearen laburpena izango dena edo abesti berrienekin sortutako saioa?**

Azken aldiko abesti berri gutxi dauzkat. Hasieran abesti tradizionalak abesten hasi nintzen, eta geroago heldu nion abestiak sortzeari. 44 urte nituenetik gaurdainoko ibilbidearen

islada erakutsi nahi dut kontzertuan. Adin horrekin lehen diskoa kaleratu nuen, “Haizea” izenekoa, eta hor ekin nion modu profesionalean kantuan aritzeari. Abesti zaharren bat edo beste joko dugu, oso gure egin diren abesti horiek, baina gainontzekoak nire abestiak izango dira. Normalean oso gutxitan abesten dut bakar-bakarrik, ez bada oso modu pertsonalean norbaiti abestu nahi diodalako edo kafetegi batean eskaintzen dudan kontzertua delako. Beste musikariek ere lan egiten dut, baina horrez gain, garrantzia berezia dute urte luze hauetan eskaini ditudan kontzertuen atzean egon diren soinu teknikariek. Gure ahotsak gu bezain ondo ezagutzen dituzte, eta oso ondo dakite gure ahotsari zer komeni zaion distira gehiago izateko. Musikariei helduz, urte hauetan musikari askorekin egin dut lan, direla abeslari direla instrumentujole.

## Mural berri bat egingo dute laster Zubiaurrenea 2an



Orain, eraikinaren behealdea txuriz agertzen den arren, laster, beste mural batek hartuko du lekukoa.



Zubiaurrenea 2ko eraikina berritzerakoan orain arte euskal presoak etxeratzearen aldarria biltzen zuen murala ezabatu

behar izan dute. Hala egitea adostua eta aurreikusia zegoen. Orain, eraikinaren behealdea txuriz agertzen den arren, las-

ter, beste mural batek hartuko du lekukoa. Datozen asteetan mural artistiko berri bat margo-tuko da bertan.

Bestetik, presoan aldeko elkarretaratzea ekainaren 25ean egingo da, 20:00etan Mikel La-boa plazan, Sarek deituta.



## Eskertza odol emaileei

**B**izitzeko odola beharrezkoa dugu. Gurea edo bizitzeko uneren batean beste batek eman dakigukeena. Azken asteotan Euskadiko odol emaileek A+, O- eta A- odol "stock"-a indartzeko deia egin dute, alegia, aipaturiko odol motetako bat dutenak ematera deitu dituzte, urte luzez hainbat lagun egiten ari den moduan.

Odol Emaileen Nazioarteko Eguna ospatu zen ekainaren 14an. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak hain zuzen, aurreko asteburuan omendu zituen emanaldi kopuru zehatz batera heldutako herritarrek: odola 25 aldiz eman duen Jon Mikel Arizmendi Zabala, 40 aldiz emandako Yolanda Urdangarin Aizpurua (ondoko argazkian), 50 aldiz emandako Jose Bautista Oliva eta 75 aldiz emandako Martxelo Sanchez Blazquez. Oroigarri bana jaso dute.



Jon Mikel Arizmendi, Yolanda Urdangarin (argazkian, diploma eskuetan), Jose Bautista Oliva eta Martxelo Sanchez omendu dituzte aurten.

### ODOL EMAILEAK

**"Datorren odol ematea uztailaren 5ean izango da, arratsalde partean"**

Odol emaileak eskertu nahi ditu Usurbilgo aipatu bilguneak, emaile berriak gauza bera egitera gonbidatzearekin

batera. Gogoan izan, datorren odol ematea, uztailaren 5ean izango da, arratsalde partean. Aldaketarik ez bada, orain arteko saioetan bezala, aurretik odola eman izan dutenei hitzordua zehazteko deituko zaie. Odola estreinakoz eman nahi dutenek aldiz, hitzordua eskatu ahalko dute 943 007 884 telefono zenbakira deituta.

### Presoen etxeratzearen aldeko Herri Krosa egin zuten igandean

Igandean Sarek deituta presoen etxeratzearen aldeko Herri Krosen parte hartu zuten hainbat herritarrek. Eguerdiko 12:00etan frontoi atzetik atera, eta Usurbilgo erdigunean hainbat itzuliguru eman ostean, frontoira itzuli ziren osterara.

Krosa amaitu ostean, zozketa txiki bat egin zuten. Presoen etxeratzea eskatu zuten oihu batean ekintza-ekin.



Sarek antolatu zuen pasa den igandeko herri krosa.

## Hondakinak nonahi ikus zitezkeen igande goizean



Sagardo Eguna edo herriko festen biharamuna zirudien herriak iragan igande goi-

zean, desberdintasun argi batekin; bezperan ez zela halako ospakizun masiborik



izan. Baina aspaldi ez bezala botila hautsiak, jan nahiz elikagaien poltsa edo edukion-

tziak nonahi ikus zitezkeen Usurbilgo kaxkoko txoko ezberdinetan.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
·eguneko menua ·asteburuko menua  
·karta ·oilasko erreak, pizzak..  
**JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!**  
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil



# OinHerri taldea: “Herria bera da eremu hezitzaile bat, ikastetxeko lau paretak gaindituta”

OinHerri taldea aurkeztu zuten ekainaren 9an Sutegin dozenaka herritar eta eragileren aurrean. OinHerri hezitzaile sare bat da, Usurbilen 2020an lanean hasi zena, eta orain, pandemiak arnas pixka bat hartu duenean, lehen urratsak emateko aukera izan dute.

OinHerri Herri Hezitzailea egitasmoa martxan jarri zuten 2012an hainbat elkarte Euskal Herrian, haurren hezkuntza eta aisia beste modu batera bideratzeko asmoz. Teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetako parte hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin, hainbat urrats eman dituzte azken aldian.

Maite Goñi OinHerriko arduradunetako batek hartu zuen hitza lehenik Sutegin. Joxe Azurmendi, Porrotx eta beste hainbat pertsonak heziketa eskola eta etxetik kanpo ere egin beharreko zerbait dela ikusita, OinHerri sortu zuten 2012an. Taldea indartsu hasi zen, baina apurka-apurka indarra galdu zuen. 2020an, ordea, udal-txetako atea jo, eta hogeit bat Udalekin egitasmoa martxan



Usurbilgo zazpi eragilek osatu dute OinHerri taldea: NOAUAik, Gaztelekuak, Ziortzak, Udarregik, Zubietako zein Aginagako eskola txikiak eta Udalak.

## OINHERRI

**“Herriak hezitzeko leku bihurtu nahi dituzte, eta pertsona guztiak hezi eta hezitzaile izan daitezkeen lanean dihardute”**

jartzea lortu zuten, tartean Usurbilgo Udalarekin, eta hala sortu zen OinHerri Usurbilgo taldea.

## 16 eragilek osatua

OinHerri herriak hezitze-ko leku bihurtu nahi ditu, eta pertsona guztiak hezi eta hezitzaile izan daitezkeen lanean dihardute. Egun, Euskal Herriko 16 eragilek osatzen dute egitasmoa; Euskal Herriko hainbat txokotan sortutako hezkuntza ez formaleko eragileak, euskara elkarteak, kultur eragileak, eragile publikoak... Giza garapenerako jolas eta sormena funtsezko

tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea dute helburu; haurrei benetan parte hartze-ko eta erabakitze-ko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez aniztasunean, berdintasunean eta modu parekidean, ingurumen natural eta kulturala zaindu komunitate sarea eta auzolana indartzea; eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

## Dolua, aztergai

Taldearen helburuak finkatuta, herrian eginiko lanak izan zituzten hizpide Zubietako Eskola Txikiko ardura-dunak, eta Ziortzaren beste ordezkari batek. Doluari buruzko lanketa egiten aritu dira bi taldeak, zein herriko beste hainbat eragile. Zubietako Eskola Txikian Pirritx, Porrotx eta Marimo-

totsek Usurbili oparitutako zuhaitzaren harira, lanketa bat egin dute hiru saiotan doluaren gaia lantzeko. Heriotza zer den, inguruan zer sortzen duen eta horren aurrean izan daitezkeen sentimenduez jardun zuten, etxekoekin gaiari buruz hitz egin zuten ondoren klasekideekin partekatze-ko, eta azkenik, zuhaitza landatu

zuten. Lanketa hori bera aurrrera eramane zuten Udarregi Ikastolan eta Aginagako Eskola Txikian ere. Ziortzak ere lanketa egin zuen gaiaren inguruan, eta beste eragile batzuk ere bai.

Doluaren gaia da lehenik eta behin lantzen hasi direna, eta horretan jarraituko dute aurrerantzean ere, bai eta bestelako

gaiak lantzen ere. Usurbilgo hainbat eragile daude proiektuan sartuta, eta gehiago izateko deia ere luzatu zuten proiektuan interesatuta dauden eragileentzat.

Aurkezpenarekin amaitzeko, doluari buruz egin zituzten lanketako irudiek eginiko bideoa erakutsi zuten Sutegin.

# Kultur Bira: Herriko artixten txanda



Kultur Biraren lehen egunean, ostiralean, Aginaga jendez bete zen Antton Telleriaren *Nekatutak* umore ikuskizuna ikusteko. Jarraian, Iñorkiñak taldeak hartu zuen oholtzara lekua. Natali Izagirre eta Ixak Arrutik parte hartze berezia egin zuten taldearekin, eta gau giro ederrean aritu ziren Aginagan.

Orbeldi edota Iñorkiñak taldeek eskainitako emanaldien ostean, Usurbilgo artixten asteburua datorkigu abian den Kultur Biraren baitan.

## Ekainak 18, ostirala

17:30 Orbeldi Dantzan II Artzabalgo frontoian. Haurrek ikasturtean zehar landutako dantzak eskainiko dituzte. Edukiera: 100 lagun. Sarrerak: herritar bakoitzarentzat gehienez 4 sarrera.

## ARTIXTEN GAU Larunbat honetan Txokoalden, Aginagako Eliza Zaharraren atarian eta Usurbilgo skate parkean

### Ekainak 19, larunbata

20:00 Artixten Gaua Txokoalden, Aginagako Eliza Zaharraren atarian eta Usurbilgo skate parkean. Ekitaldi desberdinak izango dira, parte-hartze zabalekoak, formatu txikian. Hiru

ekitaldietako izen emateak, aparte egin beharko dira.

Edukiera: 65 lagun Aginagan, 70 Txokoalden, 70 skate parkean. Sarrerak: herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera.

### Ekainak 20, igandea

18:00 "Suharra" dokumentalaren proiektzioa Sutegiko auditorioan. "Inoiz azaldu gabeko gure kulturaren parte diren bertako ganadu suharren historia kontatzen du". Edukiera: 78 lagun.

Sarrerak: herritar bakoitzarentzat gehienez 2 sarrera.

### Izen ematea:

Ekitaldi bakoitza baino bi egun lehenagora arte, usurbilkultura.eus atarian.

### Antolatzaileak:

Kalezar, Aginaga, San Esteban, Atxegalde, Santuenea eta Usurbilgo jai batzordeak; Xauxar Txosna Batzordea; Ziortza K.E.; Hitz-Aho guraso elkarte; Udala; NOAUA! K.E.



Trapu Zaharra antzerki taldea eta Orbeldiko gaztetxoak Artzabalaren aritu ziren. Ikasturtean ikasitakoarekin erakustaldi ederra eskaini zuten dantzariak.



# Kalezarko San Juanak ere biran datoz

Iazko etenaldiaren ostean bueltan datoz, Kalezarko San Juanak. Egungo testuingurura egokituta eta aurreko asteburuan abiatu zen Kultur Biraren baitan.

Ez da parranda gaurik izango. San Juanek gainera, kokaleku berria izango dute edukiera kontuengatik; plaza ez, garai bateko mojen konbentuaren, egun adinekoen auzune berria eraikitzen ari diren pareko eremua baizik. Bertan “karpa handi bat jarriko dugu”, berri eman diote NOAUA!ri Jai Batzordetik. Ekitaldiak ospatzeko unean, itxita izango da inguru honetatik igarotzen den bidea, gainerakoan zabalik.

## San Juan surik ez

Ahal den heinean tradizioari eutsi nahi izan dio Jai Batzordeak. Hala, egungo osasun krisialdira egokitutako San Juan bezperako eskea antolatu dute ekainaren 23an. Ohi bezala, bazkalostean irtekoak dira etxez etxe. Betiko ibilbidea osatu asmo dute, bertsolari eta trikitilariak bidelagun dituztela. Geldialdiak bizilagunekin adostu asmo dituzte aurrez, etxeetara deituta eta eskea etxe atariora joatea nahi duten galdetuta. Irizpide honen ara-



Aurtengoan ere ez da Jai Batzordeak antolaturiko San Juan surik izango, “jendea pilatzeko arriskua” ikusten baitute.

## JAI BATZORDEA

**Errelebo beharrean dira Jai Batzordean, aurtengo edizioa baliatu asmo dute “belaunaldi aldaketa ematen hasteko”**

bera zehaztuko dute ibilbidea. Segurtasun neurriak hartuta egingo dute.

Iaz bezala, aurtengoan ere ez da Jai Batzordeak antolaturiko San Juan surik izango, “jendea pilatzeko arriskua” ikusten baitute. Beraz, bigarren urtez ez da San Juan surik izango, ezta suziririk ere. Baina San Juan eguneko tradizioei eusteko asmoa agertu dute; meza eta toka txapelketa ere izango da. Kasuotan ez, baina gainerako ia ekitaldi guztieta-

rako sarrerak usurbilkultura. eus ataritik eskuratu beharko dira aurrez. Webgune honetan, Kalezarko San Juanek izango duten atalean klikatuta. Usurbilgo Kultur Birako hitzorduetan bezala kudeatuko dituzte txartelak.

## Etorkizuneko belaunaldientzat

Egitarauari erreparatuta, herriko sortzaileen aldeko apustua egin dute. Aparteko aipamena egitea merezi du Haurren Eguna. Auzo giroaren etorkizunari begirako egun seinatua, “beraiek baitira etorkizuna. Haurrak ez baditugu Kalezarko jaietara zaletzen, etorkizunean ez dituzte antolatuko”. Ginkana, lehiakorra izango ez den marrazki tailerra eta Ixabel Agirresaroberen ipuin kontake-

ta saioa programatu ditu aurtengoan guraso taldeak. Auzo giroari bizirik eusten ahaleginduriko belaunaldiari esker antolatu da urteotako Haurren Eguna. “Gure gurasoek egin zuten lanarekin Kalezar berpiztu zuten”, oroitzen du Jai Batzordeak.

## Errelebo hasiera

Pandemiak zaildu egin du kale giroari bizirik eustea. “Ez dira urte errazak izaten ari”. Hala ere, festak bizirik mantentzeko erabaki dute kultur ziklo honen aldeko apustua egitea. Auzo giro hori mantentzea “gure esku dago”, diote. Errelebo beharrean dira ordea Jai Batzordean, aurtengo edizioa baliatu asmo dute “belaunaldi aldaketa ematen hasteko”.

San Juanetatik haratago, “saiatuko gara urtean zehar antolatzen eta auzoa egiten”, iragarri dute Jai Batzordetik. Ildo horretan, pozgarrizat jotzen dute, etorkizuneko Pelaioenegitasmooan kalezartarrek izango duten udal ekipamenduaren harira auzo elkartearekin bideratu duten lanketa. “Aitzakia ona izan da, adin ezberdinetako jendea elkartzeko. Ekimenak antolatzeko jendea gogotsu dagoela ikusi ahal izan dugu”.

## San Juanak Kultur Biran

### Ekainak 23, asteazkena

■ 15:00 San Juan eskearen irteera. Oharra: Covid-19 arrazoiak direla eta aurtun ez da San Juan surik egingo.

### Ekainak 24, osteguna

■ 11:00 Meza Nagusia.  
■ 12:00 Toka.  
■ 19:00 Bertso musikatuena saioa. Parte hartzaileak: Nerea Ibarzabal, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Amaia Agirre, Gari Otamen-di eta Ixak Arruti.

### Ekainak 25, ostirala

■ 20:00 Ameba kontzertuan.

### Ekainak 26, larunbata

■ 12:00 Harri jasotze eta aizkolarien erakustaldia.  
■ 18:00 Bakarrizketak: Portillo eta Nako.  
■ 20:00 Maddi eta Ane.

### Ekainak 27, igandea

■ 10:30 Kalexarko ginkana.  
-Izen ematea: kalezarko-jaiak@gmail.com  
-Partaideak: gai librean mozo-

rrotuta.

-10 urtetik beherakoek, guraso bateg lagunduak.

-Taldea bakoitzean gehienez 6 pertsona.

■ 16:00 Marrazki tailerra: haur, gazte eta helduentzat.

-Bakoitzak bere materiala ekarri beharko du.

-Sei urtetik beherakoek, guraso bateg lagunduak.

■ 17:30 Ipuin kontaketa saioa Ixabel Agirresaroberekin.

-Sei urtetik beherakoek, guraso bateg lagunduak.

### Jai Batzordearen oharrak:

■ Bertso musikatuena saiorako, kontzertuetarako, herri kirolen erakustaldirako, bakarrizketa saiorako, marrazki tailer eta ipuin kontaketa saiorako sarrerak usurbilkultura.eus atarian.

■ Ekintza guztietan protokoloak ezarritako neurriak errespetatzea derrigorrezkoa izango da.

■ Jai Batzordea ez da egunotan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.

# “Euskal Sagardoarekin topa egin dezagun”

**P**andemiagatik aurten mahaietan eserita kontsumitu ahal izan den txotx garaiko sagardo berria botilaratua dastatzeko garai ezin ederragoa dugu ate joka datorkigun uda parte hau. Horretara gonbidatzen gintuzten Euskal Sagardoa jatorri deituraren sustatzaileek Donostiako Miramar jauregi atarian iragan astean egin zuten agerraldian.

Hilabeteotarako “Hik Nik” kanpaina aurkeztu dute. “Hitz jolas horrekin euskal sagardoa kanpoaldean kontsumitzeko gonbita egin nahi diogu jendeari”, adierazi zuen Euskal Sagardoa egitasmoko teknikari Olatz Mitxelena.

Kanpainarekin batera euskarri bat plazaratu dutela berri eman zuten, bertako eta kalitatezko produktuak eta euskal sagardoa uztartzen dituen errezetekin. “Sagardoa botilan gozatzeko unea da eta hik nik horiek ea zuek ere proposatzen dituzuen”.

## Sagardotegien ia erdia zabalik udan

Ezohiko txotx denboraldiaren eta pandemia garaiko sagardo kontsumoaren inguruko datu deigarriak eskaini zituen. Ateak itxi eta irekitzen ibili diren sagardotegiek %25ean lan egin dute aurreko urteekin alderatuta. Eserita kontsumitu



“Sagardoa botilan gozatzeko unea da”, adierazi zuten Euskal Sagardoa jatorri deituraren sustatzaileek.

## EUSKAL SAGARDOA

### “Online bidezko sagardo botilen salmenta goranzko bidean da”

beharra izan da sagardoa eta ondorioz, “botilari edo produktuari beste presentzia bat emateko” aukera izan dela nabarmendu zuen Mitxelena. “Benetan eskertu nahi genuke bezeroaren erantzuna”. Urte hasieran aurkeztu zuten protokoloa eraginkortzat jo eta sagardotegien %45a udan irekia izango dela iragarri zuen.

Sagardotegiko otordua osagai duten egun pasa edo ekin-tza ezberdinen online bidezko

erreserbak hazten doazela gaineratu zuen; duela bi urterara arte kanpoko bezeroak zirela halako hitzorduek gehien erakartzen zituztenak, bertako bezeroak ere batu direla azken bi urteotan. Online bidezko sagardo botilen salmenta ere goranzko bidean da; %485 igo zen 2019-20 urte artean, azken urtebetean %55.

## Iaz, 20 milioiko galerak

Pandemia garaian izandako galeren kontrapuntua da. 20 milioi euroko galerak izan zituen sektoreak iazko martxotik hona, Oihana Gaintzerain, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako lehendakari eta sagardogileak adierazi zuenez. Halere,

sektorearen sendotasuna nabarmenduta, “aurrera ateratzeko esperantza” argia dutela zioen iragan astean Miramarreko agerraldian. “Esperantza udan jarria dugu”, iragarri zuen. Kanean antola daitezkeen kirol edota kultur jardueretan “denetan sagardoa dastatzeko aukera luzatu nahi dugu”. Baita pandemia honek kolpatu duen ostalaritza establezimenduetan ere. Sektore honi keinua egin nahi izan zion Gaintzerainek, “guztion artean atera behar dugulako aurrera”. Terraza nahiz ekitaldietan, mendian edota hondartzetan, “ez dago aitzakiarik, uda honetan sagardoarekin topa egin dezagun”.

## “Izaera handiko sagardoak”

Zer nolako sagardoa dastatu ahalko dugun? Iazkoa “uzta txikia” izan zen arren, Euskal Sagardoa jatorri deiturako kide eta sagargile Felix San Sebastianen esanetan, “izaera handiko sagardoak” izango ditugu dastagai. Euskal Sagardoa jatorri deitura duten EAE-ko 48 sagardotegi daude, 250 sagargile, 486 hektarea, batzuk sa-

gardo bat baino gehiago ekoizten dituztela jakinda, “70 bat erreferentzia”, egitasmu honetako ordezkari Unai Agirrek zioenez. Tartean, inguruotako sagardotegietakoak; Zubietako Araeta, Kalezarko Saizar edota Aginagako Urdaira.

Sagardoa kalitate goreneko lehengai bat bilakatzeko bidean, ezinbestekotzat jo zuen

“uzta arteko desoreka haustea”. Horretarako, “ikerketa eta saiakeretan ari gara gure sagastietan”. Unai Agirrek azaldu zuenez, une honetan “bakanketa eta polinizazioarekin ari gara”.

Etorkizunerako espero dituzte emaitzak. Horretan ahal-egintzeko asmo argia agertu zuen Felix San Sebastianek.

## Guztion bultzadaren beharra

Pandemiak sektoreak baino kanal zehatzak kaltetu dituela ohartarazita, indarguneak baliatu eta aurrera jotzeko deia egin zuen Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien politikako sailburu ordeak. “Denon ardura da bultzada ematea une zail hauetan”.



# Udaleku feministak Usurbilen

**B**uruntzaldeko Neska\* Gazteek eskualde mailako udaleku feministak antolatu dituzte uztailaren 9tik 11ra Usurbilen. Herriz herri egiten aritu diren moduan, aste hasieran aurkeztu zituzten jardunaldiok Mikel Laboa plazan. Ekainaren 12tik 27ra arte eman ahaliko da izena, mugimendu feministak sare sozialetan dituen helbideetan.

Trans egoerak hizpide izango dituen hitzaldia, prostituzioaren inguruko oka jolasa, ligoteo sanoari edota “nola feminismoak osatzen gaituen” hizpide izango duten tailerrak, Buruntzaldeko neska\* gazte taldeen aurkezpena, kontzertuak, gaubelak... eta gehiago iragarri dituzte. Xehetasun gehiago datozen astekarrietan.



Ekainaren 12tik 27ra arte eman ahaliko da izena, mugimendu feministak sare sozialetan dituen helbideetan.

# Uztailaren 5ean abiatuko da Udajolas



Aste hasieran bilerak egin ziren HH zein LHko ikasleen gurasoekin.

HH3-LH6 maila artean ikasten duten 4-12 urte arteko 200 laguntzako lekua zegoen, eta ia plaza guztiak bete ziren inskripzio aldian. Ia 190 izen emate batu dituzte aurtengo udaleku irekiek.

## Prebentzio neurrien artean

Gogoan izan, Udajolas uztailaren 5etik 30era antolatu dutela NOAUA!-k eta Usurbilgo Udalak. Egunero, astelehenetik ostiralera, goizez eta lau orduz eskainiko da zerbitzua; 9:30-

13:30 artean. Iazkoaren ildo beretik, aurtengo edizioa ere pandemiak baldintzaturikoa izango da. Covid-19ari aurre egiteko prebentzio neurri artean bideratuko da aurtengo Udajolas.

## Eukaliptoen inguruko hitzaldia

Ostegunean (ekainak 17) 18:30ean hasita Sutegin, EHUko Zientzia eta Teknologia fakultatean irakasle katedradun Arturo Elosegiren eskutik eta Anerreka Ingurumen Elkarteak antolatuta. Gai honi buruzko txostena idatzia du Elosegik Eusko Jaurlaritzaren enkarguz, kide gehiagorekin batera. “Txosten horretan jasotako mamia jorratuko du Arturo Elosegik bere hitzaldian”.

## Usurbil FT-ren “gabonetako” zozketa

Orain arte urte amaieran, egin ohi duen errifa zozketa berriki egin du Usurbil Futbol Taldeak. Hemen zenbaki sarituak:

1. Saria: 5.294.
2. Saria: 6.922.
3. Saria: 2.644.
4. Saria: 7.114.
5. Saria: 0.795.

# Tokiko merkataritza eta ostalaritza indartzeko bigarren plana jarri dute martxan

Zazpi helburu estrategiko nagusi, 6 jarduerako ildo estrategiko, 23 proposamen eta 40 ekintza zehaztuak ditu Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza, “testuinguru zail eta konplexu honetan” biziberritzeko Usurbilgo Udalak Siadecorekin landu duen bigarren planak. 2009-10 urte artean diseinatu eta azken hamarkadan martxan izan den lehenengo plangintzaren segida da. Orduko hainbat egitasmo bideratu ostean dator berria; besteak beste plangintza hartatik eratorritakoak dira erosketak egiteko aparkaleku urdinak edota erosketak ordaintzeko txartela. Honako hau gutxienez bost urtez izango da indarrean. Milioi bat euro inbertituko ditu sektorean udalerrri honek.

Pandemiak eragindako “egoera ezegonkor, aldakor eta ziurgabea” aurrera jotzeko, nora joan seinalatzatuko duen itsasargi bezala definitu zuen Agurtzane Solaberrieta alkateak plangintza berria, ekainaren 10ean Potxoenean egin zuten aurkezpenean. Egitasmoak “hara iristeko garatu beharreko ildo estrategikoak,



Ekainaren 10ean plangintza berriaren aurkezpena egin zuten Potxoenean.

## BOST URTEKO EPEAN

### Udalak milioi bat euro inbertituko du merkataritza eta ostalaritza sektorea biziberritzeko

eragile bakoitzaren egitekoak ondo definitzen ditu”. Sektorea babestu eta zaintzeko beharra dagoela azpimarratzen du alkateak, Udalaren erronka nagusietakoa dela, “mundu geroz eta globalizatuago eta

digitalizatuago batean” bizita, alkateak gaineratzen zuen moduan, pandemia honek sektoreak bizirauteko aurrez zituen zailtasunak areagotu baino ez dituenen.

## Pandemiak baldintzatuta

2019. urte amaieratik pandemiak bizimodua aldarazi arteko tartean landu zuten diagnostia, Covid-19ak etxean sartu gintuenean jarri zuten martxan plana. Diagnostia diseinatzeko, eragile bakoitza banaka elkarrizketatu zen, bai

ta 600 etxebizitzatik gora ere. “Emitza zehatzak eta oso interesgarriak utzi ditu”, zioen Potxoenean, lanketa hau bideratua duen Siadecoko ordezkari Juanjo Allurrek, parte hartu dutenei eskerrak helaraztearekin batera.

Pandemiak bete-betean eragin du egitasmo honetan. “Diagnostiaren ondorioak eguneratu beharra izan genuen”, Allurren esanetan. Eta plangintza jorratzeko aurreikusitako zituen lehentasunak eta dinamikak aldarazi zituen.

## Ildo estrategikoak

■ Sektoreko lankidetzaren indartzea, “bakarka ibili baino elkarrekin arituta emaitza hobea lortuko direla benetan sinestea”, Allurrek zioen. Horrekin batera, Hurbilagora bazkide berriak erakartzea, kanpo komunikazioa garai berrietara egokitzea.

■ Lankidetzaren publiko-privatua sustatzea litzateke beste helburua, sektorea zeharleroa izatea herrigintzaren alor guztietan, ezinbesteko eragile gakoak kontuan hartuta; sektorea, Udala eta herritarrek,

herri eragileak. “Herri bizia izaten segitzeko sektore garrantzitsua da” ostalaritza eta merkataritzarena, Allurrek nabarmentzen zuenez. Herriko bizitza soziokulturala ostalaritzarentzat onuragarria dela adierazita, urrats bat gehiago emateko erronka proposatu zuen; merkatarientzat ere onuragarria izatea. “Larunbatetako plana” inguruko merkataritza gune handietara joan beharrean, “gure herrian” gertatzea izatea.

■ Merkataritza eskaintza ahalik

eta osoena izatea Usurbilek, hortxe beste erronka, bai herrigunean eta auzoetan. Horretarako erraztasunak eskaintzen jarraitzea negozio berriak zabaldu nahi dituztenei (alokairurako, inbertsioetarako...) eta dauden “hutsuneak osatzeko ahalegin berezia egitea”, egun herriak ez dituen zerbitzu eta produktuak eskaintzeko. Eta bestelako zerbitzu osagarriak ematea, hala nola produktuak etxera eramateko zerbitzua.

■ Sektoreari ikusgarritasun gehiago eman, mundu birtua-

lean martxan den gertuago.eus webgunearen bidez, edota kalean, Hurbilagok herri bizitza sustatzeko bidera ditzakeen ekimenen bidez.

■ Sektorearen modernizazioa. Etengabeko formazioa bultzatu eta teknologia berrietan murgiltzea, tartean, TicketBai egitasmorako berregokitzea.

■ Herri nahiz auzoak erosoago eta erakargarriago bilakatzeko, paseorako eta erosketak egiteko oinezkoen eremuak sustatuta, eta aparkalekuak hurbil kokatuta.




# gertuago.eus, herri merkataritzaren eta ostalaritzaren erakusleihen bateratu berria

**T**okiko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko plangintza orokorretik sortu zen iaz, gertuago.eus egitasmoa. Udaberriko konfinamendutik irten ginenean, sektorea laguntzeko eta tokiko kontsumoa sustatzeko erosketabonuak %20ko deskontua aplikatuta salgai jarri zituen ataria izan genuen iragan martxora arte.

Erosketa bonuok herriko denetan xahutu genitzakeen. Web orriak berak, Usurbilen ostalaritza eta merkataritza sektorean dugun eskaintza zabala islatu zuen. Eta hala izaten segi nahi du, Usurbilgo Udalak ekainaren 10ean Potxoenean aurkeztu zuen egitasmoaren fase berri honetan ere.

## Hitzarmena indartzeko apustua

Udalak berak eta Hurbilago Elkarteak 2021erako sinatua duten lankidetzaren hitzarmenaren harira dator aldaketa.



Gaur egun, herriko 51 establezimenduen bilgunea da gertuago.eus web orria.

## MIREN CUERDO

**Orain arte parte izan ez direnentzat ere bada tokia. "Gertuago merkatarie guztiei zabalik dago"**

Egun, herriko 51 establezimenduen egoitza da gertuago.eus webgunea, "erreferentzialtasuna lortzen ari den ekimena" alkatearen esanetan. Eta herrian erosteko konpromisoa areagotu den pandemia garaioan, hortxe kokatzen dute

hurrengo erronka; "erosketa bonuak eskuratzeko webgunea izatek haratago, Usurbilgo establezimenduen erakusleihen bateratu bat izatea", alor honetan abiarazten diren egitasmoen erreferentziatzeko marka.

Erakusleihen ahalik eta bizen eta osatuena izate aldera, herritarrek etengabe atari honetara erakartzeko arazoak izateko, baliabide propioak indartzeko apustua egin dute Hurbilagok eta Udalak sinaturiko hitzarmenaren bidez; orain arteko 8.000 eurotik 30.000 eurora hazi da Udalak

ostalari eta merkatarieen elkar-teari egindako ekarpena. Tes-tuinguru honetan, Gertuago egitasmoaren fase berri hau kudeatzeko Miren Cuervo dinamizatzailea kontratatu dute.

"Informazio bila eta merkatariek hurbiletik ezagutzera gerturatuko naiz establezimendu ezberdinetara", zioen Potxoenean aurkezpenean Cuervok. Helburua, erakusleihen hori sortzeko katalogoa osatzea litzateke eta establezimenduek bere eskaintza online saltzeko aukera ematea. Datuak eta irudiak bilduko ditu Cuervok den-daz denda. "Modu pertsonal batean lan egitea gustuko dut. Bakoitzari behar duen denbora eskainiko diot".

Informazioa jaso ahala gertuago.eus atarian zintzilikatzen joango dira, uztailea hasieran. "Gonbidatu orain arte parte izan ez direnentzako, Gertuago zabalik dagoela merkatarie guztientzat. Ekimen honetan parte hartzera animatzen ditut".

## Aukera ona, hain ezagunak ez diren zerbitzuen berri emateko

51 establezimendu batzen ditu egun fase berrian sartu den Gertuago egitasmoak. Norberak duen eskaintza ezagutzeko plataforma ezin egokiagotzat jotzen dute sektoreko eragileek. Proiektuarekin bat egin dutenen artean da Saizar sagardotegia. Azken urtean erosketa bonuak salgai izan eta "gure etxean oso ondo funtzionatu

ostean", Joana Lertxundik iragan osteguneko aurkezpenean Potxoenean zioenez, hain garrantzitsua bilakatu den digitalizazioan jauzia emateko "aukera ona iruditu zaigu plataforma".

Aukera ona baita, agian bezeroentzat hain ezagunak ez diren zerbitzuen berri emateko ere. "Pentsatzen dugu dena ezaguna dela, baina beti dago jendeak

hainbeste ezagutzen ez duen zerbitzu edo produkturen bat erakusteko aukera".

Eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen katalogoa prestatu eta "pixkanaka ditugun berrikuntzak, unean uneko eskaintza erakusten joango gara". Aukera egokitzat jotzen du Lertxundik, "gure salmenta bultzatzeko" ere. Finean,

"proiektu polita" iruditzen zaio, bakoitzak "herritar guztiei eskaintzeko duenaren erakusleihoa izateko".

Gertuago.eus plataformarekin bat egin duen beste establezimendu bat Lizardi liburu denda da. "Oso gustura gaude" egitasmoarekin, zioen Irati Artzek. Aukera baliatzeko asmoa agertu du.

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

## 6 milioi euroko inbertsioa egingo da Aginagako hondakin-urak bideratzeko

**A**ñarbeko Urak-ek eta Ur Agentziak 6,26 milioi euro inbertituko dituzte azken honek ekainaren 7an lizitatu dituen Aginagako saneamenduko obrak egiteko. Lanak amaitu ondoren, hondakin-uren isurketa guztiak ezabatuko dira Oria ibaiaren beheko ibilgura.

Saneamenduko obra horiek amaitzen direnean, Aginagako hondakin-urak konektatuta egongo dira Usurbil-Lasarte-Oria-Hernani hodi-biltzaile nagusira, eta Donostiako Loiola auzoan kokaturik dagoen araztegia garraiatuko dituzte. Bertan, tratatu egingo dituzte eta ondoren, Monpaseko urpeko hustubidetik, itsasora isuriko dituzte.

Obren helburua da Usurbilgo Aginaga eta Txokoalde auzoetako hondakin-urak jasotzea; gaur egun zuzenean Oria ibaira isurtzen direnak. Horretarako, ibaiarekiko paraleloan joango den kolektore berri bat jarriko dute. Aginagako eremu baxuetatik irtengo da, Txinortatik, eta Usurbil-Lasarte Oria-Hernani hodi-biltzaile nagusiarekin



Ur Agentziak finantzatuko du %60a eta Añarbeko Urak % 40a, bi erakundeen artean sinatutako hitzarmenari esker.

### HONDAKIN-URAK

**“Helburua da Aginaga eta Txokoaldeko hondakin-urak jasotzea. Gaur egun zuzenean Oria ibaira isurtzen dira”**

konektatuko dute Usurbilgo Zumartegi poligonoan. Hondakin-uren bi ponpatze-estazio berri eraikiko dituzte horretarako, Txokoalden eta Agina-

gan, eta 4.263,99 metro luzera izango dituen kolektore-sare bat.

Ponpatze-estazio berriak eta kolektore nagusiak Añarberen kontura izango dira, eta sare sekundarioen kudeaketa, berriz, udalaren kontura izango da. Obren lizitazio-aurrekontua 5.412.372 eurokoa da eta 21 hilabeteko egitaritze-epea du. Ur Agentziak finantzatuko ditu % 60an eta Añarbeko Urak % 40an.

## Urbilek haurrentzako aulkiak birziklatuko ditu

Babyauto Taldearekin eta Emausekin batera, haurren eserlekuak birziklatzeko programa egoki eta eraginkorra antolatu du Urbilek. Aulkiak ohiko zaborrontzi eta errauste-planta batean amaitu ez dezaten, plastiko kutsadura eta ingurumen-degradazioaren bizkortzea saihestea du helburu Urbilek.

Segurtasun-eserleku zaharrak birziklatzeko aukera emateaz gain, haurrentzako aulkitxo bat erabiltzeari uzteko arrazoiak ezagutzearen eta



Kanpaina honekin plastiko kutsadura eta ingurumen-degradazioaren bizkortzea saihestu nahi da.

iraungitako eserlekuarekin zer erantzina gogorarazteaz ere arduratuko da programa.

### Zirimararen izen-ematea hilaren 18an itxiko da

Zirimarak datorren ikasturterako izen-ematea irekita dauka ekainaren 18ra arte. Azken astean ate irekien saioak eskaini dituzte hurrengo ikasturtean izen eman nahi duten umeei probatu ahal izateko.

Izen-ematea jada irekita dago, eta hilaren 18ra arte egongo da irekita.

### Izen-ematea, online

Online egin beharko da prozesua: <http://forms.gle/gQa4UkzFh8p7aPE7> gunean izen-ematea egin, eta ordainketa egin beharko da Udarregi Ikastolaren kontu korrontean: ES45 3008 0259 1121 8354 1214, eta azkenik, eskolakirola@udarregi.eus helbidera agiria bidali beharko da.

### Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko epea amaitzear da

Ekainaren 18ra arte zabalik izango da, Lanbide Heziketa osoan aurrematrikulatzeko epea. Atallun kokatua dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan sukaldaritza eta jatetxe arloan, nahiz ile-apainketa eta estetika arloan oinarrizko lanbide titulua eskuratzeko aukera eskaintzen dute. Zurbietan kokaturiko Lanbide Heziketan erdi mailako zikloak eta goi mailakoak. Informazio gehiagorako:

### Lanbide Heziketa:

lhusurbil.eus  
943 364 600  
adkomunikazioa@lhusurbil.eus

### Oinarrizko Lanbide Heziketa:

olh.usurbil.eus  
943 360 465  
lhi@usurbil.eus



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalaxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

**Alokairuan**

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

**MOTORRA****Salmenta,  
garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m<sup>2</sup> Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburueterako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak,

peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisie-

za@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

**BESTELAKOAK**

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzaintan utzi du. Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzaintetara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaio herriari. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizpahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bouchrahajar@outlook.com

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburua... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak bikote!**

Ekainaren 21ean zuen urtebetetzea ospatuko dugu! Ea nork prestatzen duen bizkotxo goxo-goxoa!! Muxuak etxekoen partez!!

**Heriotzak****Angelita Soroa Berrotaran**

Ekainaren 13an hil zen, 97 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 17** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 18** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 19** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astelehena 21** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteartea 22** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteazkena 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

**Osteguna 24** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 25** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 26** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 27** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

# Agenda ekaina

## 18 ostirala

- **Kultur Bira.** Orbeldi Dantzan, umeen emanaldia. 17:30ean Artzabalen.
- **Zumarteko ikasleen kontzertua.** Taldeen saioak, 18:30ean Artzabalen.

## 19 larunbata

- **"Usurbil astindu" zikloa:** hitzaldia eta erakusketa, 11:00etan Mikel Laboa plazan. "Herri kooperatiba", Gorka Juliorekin.
- **Kultur Bira.** 20:00etan Artixten Gaua, Aginagako Eliza Zaharraren atarian, Txokoalden eta Usurbilgo skate parkean.

## 20 igandea

- **Kultur Bira.** "Suharra" dokumentala, 18:00etan Sutegin.

## Kultur Bira, bete-betean

### Ekainak 18, ostirala

- **17:30 Orbeldi Dantzan II, haurren emanaldia Artzabalgo frontoian.**

Zehaztasunak: Orbeldi Dantza Taldeko haurrek ikasturtean zehar landutako dantzak eskainiko dizkiete herritarrei. Euskal Herriko txoko askotako dantzekin gozatu ahal izango dugu.

Edukiera: 100 lagun.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez 4 sarrera.

### Ekainak 19, larunbata

- **20:00 Artixten Gaua. Aginagako Eliza Zaharraren atarian, Txokoalden eta Usurbilgo skate parkean.**

Zehaztasunak: "Aldi berean egingo diren hiru emanalditan herriko artixtetaz gozatzeko aukera paregabea izango da. Ekitaldi desberdinak izango dira, parte-hartze zabalekoak, formatu txikian. Hiru ekitaldietako izen emateak, aparte egin behar-



Ostiral honetan, Orbeldiko gaztetxoak Artzabalgo frontoian arituko dira.

ko dira".

Edukiera: 65 lagun Aginagan, 70 Txokoalden, 70 skate parkean.

Oharra: herritar bakoitzarentzat gehienez ere 2 sarrera.

### Ekainak 20, igandea

- **18:00 'Suharra' dokumentala Sutegin.**

Gure kulturaren parte diren bertako gaudu suharren historia kontatzen duen dokumentala.

### Datozenak

#### Ekainaren 25ean, presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea

Ekainaren 25ean ostirala, euskal presoek eskubideen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo da, 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilgo Sare.

#### Industria jardueren inguruko inkerlanaren aurkezpena

Usurbilgo aire kalitatean herriko jarduera nagusiek duten eragina hobeto ezagutzeko asmoz, lanaren egile diren Kataluniako UPC-ko unibertsitateko ikerlariak egindako lana aurkeztuko dute. Herriko jarduera nagusien emisio iturriak batetik, eta Usurbilgo datu meteorologiko zein morfologikoak kontutan hartuta, herriko zein gunetan eragiten duten aztertu du Udalak, eta emaitza horiek dira hain zuzen ere aurkeztu nahi direnak.

#### Ekainak 29 asteartea

- 19:00etan Sutegin.
- Edukiera: 30 lagun.
- Izen ematea: doan ekainaren 27ra arte, usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Zumarteren ikasturte amaierako kontzertuak

### Hainbat emanaldi

#### Ekainak 17, osteguna

- 18:00 Musika Mintzaira eta Banda, 19:30 Abesbatza, Mikel Laboa plazan.
- Oharra: euria eginez gero, emanaldiok Askatasuna plazan egingo dira.

### Taldeen saioak

#### Ekainak 18, ostirala

- 18:30 Taldeen saioak, Artzabalen. Sarrera: gonbidapen bidez. Informazio gehiago: zumarte.eus Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.



Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL





# GIPUZKOAK BADU

ETORKIZUNA



Zu bezalako 720.000  
gipuzkoarrei esker,

**Europar  
desberdintasun  
maila txikienetarikoak**  
duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro

ETORKIZUNA  
**ERAIKIZ**  
#GipuzkoarKonpromisoa



# Edertu zaitez!

**INDIBA**  
DEEP BEAUTY

PROFIC BODY CARE SYSTEM

**DESKONTU BEREZIAK**

· ZELLULEN BIRSORTZEA · LIPOLISISA · MODELAKETA · ERREAFIRMAZIOA  
· AZALAREN TONIFIKAZIOA · OXIGENAZIOA · HIDRATAZIOA · LIFTING

✓ ZELLULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LELINKETA  
✓ BULARRAREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

**Enar**  
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA · TERMOLINEA · ELEKTROSTIMULAZIOA · KONTAKO TERAPIA  
munalurra 2, USURBIL 943 571680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

Ile mota guztiak. Pertsona mota guztiak.

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

**Elexpe**  
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

9.00etatik 19.00etara zabalik

**mistoa**

**BIOLOGO BATEK  
MIKROSKOPIOZ  
EGINDAKO BURU-AZAL  
ETA ILEAREN AZTERKETA**

**KONTSULTA DOAN!**

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951